

KOSTALDEA



GOIZEZ



ARRATSALDEZ



01:53 • 14:08



07:49 • 20:16

MAREAK

Jaiak



MONIKA DEL VALLE

Pintxo eta piperrada lehiaketa egingo dira gaur Ibarren, eta ondoren jan egingo dituzte.

ADUNA

11:00: Herri krosa.

12:00: Sagardo proba. (Edalontzia erosi behar da, eta honela pintxoak jateko txartela lortuko da).

14:00: Txekor jatea.

18:00: Toka.

Ondoren eta gauean: Epelde eta Larrañaga.

ATHARRATZE

Egunean zehar: Airoski, La Mauleonaïse eta Txanbezpél musika taldeak herriko karriketan barrena ariko dira.

10:30: Meza. Elizkizunaren ostean

Atharratzeko eta Otsagabiako dantzarien desfilea egingen da. Ondoren, Otsagabiako Herriko Etxeko hautetsiei harrera egingo zaie.

12:00: Zintzur bustitzea. Musika bandek animatutako zintzur bustitzea.

17:00: Folklore jaialdia. Herriko plazan hainbat ekitaldi izanen dira.

19:00: Haurrentzako dantzaldia. Tabascoren eskutik, haurrentzako dantzaldia.

23:00: Zezensuzkoa. Zezensuzkoaren ostean, Tabascoren dantzaldia egingen da.

BURLATA

09:00: Dianak.

10:00: Kalejira, Iraunkorrek eta Itxabalea txarangekin.

11:00: Erraldoi eta buruhandien konpartsaren ibilaldia, herriko kaleetan barrena.

11:00-14:00: Haurrentzako parkea, Hilarion Eslava ikastetxean. Tren turistikoa, labirintoa, ludoteka, pilota-etxea, puzgarria.

12:00: Maese Villarejo eta bere panpina bizidunak, Udal parkean.

13:00: Bigantxen entzierroa, San Frantzisko kalean.

17:00-20:00: Haurrentzako parkea. Hilarion Eslava parkean.

19:00: Kalejira, Iraunkorrek eta Itxabalea txarangekin.

19:00: Herri kirolaren ikuskizuna, Burlatako Herri Kirol Taldeak emana. Korrikalariak, aizkolariak, mozketa bertikala, mozketa aitzurrez.... Larrainetako plazan.

20:00: Dantzak txistuz eta gaitaz.

20:00: Kontzertua, Xabier Kamara orkestrarekin, Udal parkean.

20:30: Dantzaldia, Mariachi Diego Quevedo orkestrarekin, Ezkabazabal plazan.

22:30: Zezensuzkoa, San Frantzisko kalean.

00:30: Dantzaldia, Mariachi Diego Quevedo orkestrarekin, Ezkabazabal plazan, goizeko 03:30 arte.

DEBA

08:30: Diana dultzaineroekin.

09:30: Betiko korrika.

11:30: Umeen bilkura, Ifarkalean.

12:00: Eskaintza, elizan. Ondoren, desfilea.

12:30: Pottokak, Foruen Plazan.

18:00: Jaialdia plazan. Tanborrada, herri kirolak, dantza. Ondoren, erraldoi eta buruhandiak, Lizarrako dultzaineroekin.

IBARRA

09:30: Gazteentzako txirrindulari lasterketa, XX. San Bartolome saria. Antolatzailea: Ibarra Kirol Elkartea. Laguntzailea, berriz, Ibarra Udal.

10:00-14:00: Euskadiko piperraren IV. azoka, Emeterio Arrese Parkean.

12:00: Ibarra udal haur eskolaren inaugurazioa.

13:00: Emeterio Arrese XIII. Literatur lehiaketaren sari banaketa, Emeterio Arrese parkean.

18:00: Pintxo eta piperrada lehiaketa, San Bartolome plazan.

18:30: Baztango Dantzariak taldearen

saioa izango da, San Bartolome enparantzan.

TAFALLA

05:00: Entzierroa.

07:00: Diana.

08:00: Zezenen entzierroa. Ondoren, bigantxak askatuko dituzte.

10:00: Tafallako XI. Bizikleta lasterketa, bertako Txirrindularitza Elkartek antolatuta.

11:00: Buruhandi eta erraldoien kalejira.

11:00: El Cierzo peñaren kalejirak bisita egin du Zaharren Egoitzara.

12:30: Tafallako trikitilari eskolako musikariekin kalejira.

13:00: 32. Txistularien alardea, Foruen Plazan.

17:15: Zezenketa aurreko paseilloa zezen-plazaraino, gaitero, eta musika eskolako musikariekin.

17:30-19:30: Lehenengo moto krosa, Romerales zirkuituan.

18:00: Zezenketa Marques de Albaserrada ganadutegiko zezenekin. Toreatzaileak: El Molinero, Marc Serrano eta Zotoculo. Zezenketaren ostean, bigantxak askatuko dituzte zezen-plazan.

18:00: Maese Villarejo *Gorgorito*, Conde plazan.

19:00: Diskoteka mugikorra, Karpan.

20:00: La Guagua orkestrarekin dantzaldia, Nafarroako plazan.

21:00: Peñen itzulera, zezen-plazatik abiatuta.

22:00: Bertako dantzen erakustaldia, Nafarroako plazan.

22:30: Zezensuzkoa.

23:00: Su festa Caballer piroteknia etxearen eskutik, Conde plazan.

23:30: El Gigante de Hierro filma izango da ikusgai, Kultur Etxean.

00:00: Diskoteka mugikorra, Karpan.

00:30: El Aguazon peñaren kalejira.

01:00: La Guagua orkestrarekin dantzaldia, Nafarroako plazan.

plisti-plasta

Aste Nagusiko jaietan, Enkarterrin ez dute izango tren zerbitzurik gaez

Enkarterrin gaez ez dute tren zerbitzurik izango Bilboko Aste Nagusian, Feveko LAB eta CCOO sindikatuek jakinarazitakoa-ren arabera. Feveko zuzendaritzak greba egiteko erabakia hartu du, eta era horretan, Bilbo eta Balmaseda arteko zerbitzu horren erabiltzaileek ez dute izango garraio publikoko eskaintzarik gauetarako. Sindikatuen ustetan, Feve enpresak bizkaitarrak «bazter utzi» ditu.

Iaz baino jende gutxiagok hartu du uztailen hegazkina oporretan joateko

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi duenez, iaz baino jende gutxiagok hartu du aurtén, uztailen, hegazkina oporretan joateko. Hain zuzen ere, 273.402 bidaiari zenbatu dituzte Loiuko eta Hondarribiko aireportuetatik irtendako hegaldi guztietan. Datu hori, iazko irailekoa baino %5,9 txikiagoa da, Eusko Jaurlaritzak azaldu duenez.

JAVIER ETXEBARRIA

PRENTSA SALTZAILEA



KEPA UGARTE

«Beren herriko berri jakin nahi izaten dute»

Mikel Polo | **BILBO**

Aste Nagusian Bilboko kale-etatik nabilela, hara non ikusten dudán atzerriko egunkariak salgai dituen denda bat. Kanpoko prentsak Bilbon duen harreraren inguruan solasalditxo bat izan dugu dendako saltzaile Javier Etxeberriarekin.

■ **Atzerriko egunkariak ere badituzue. Asko saltzen dira?**

Ez, udan gauden arren, ez da atzerritar asko etortzen egunkaria erostera.

■ **Udan soilik jartzen dituzue Euskal Herritik kanpoko egunkariak?**

Ez, urte osoan jartzen ditugu. Ale kopuru bera jasotzen dugu udan nahiz neguan.

■ **Zeintzuk dira horien artetik gehien saltzen diren egunkariak?**

Inguruko eskualdeetakoak.

Errioxakoak, *El Diario Montañes*, *El Diario de Burgos*... Zonalde horietako jende asko dago hemen finkatuta, eta beren herriko berriak jarraitzen saiatzen dira. Hori denoi gertatzen zaigu. Gure herrian zer gertatzen den jakin nahi izatea oso gauza arrunta da. Ez dago esan beharrik batez ere informazio orokorra bilatzen dutela, eta ez egunkari espezializatuak.

■ **Atzerriko gainontzeko herrialdeei dagokienez, berriz, zeintzuk dira jendeak gehien eskatzen dituen egunkariak?**

Egia esan, oso gutxi saltzen dira. Guk, batez ere ingelesezko egunkariak eta Frantziako prentsa jasotzen dugu, baina hori tartean behin gertatzen da, behin-behineko bezeroen arabera-koa da.